

### PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	BILTEGIAREN KUDEAKETA ETA MERKATURATZEA ELIKAGAIEN INDUSTRIAN (zeharkakoa)	Iraupena	80
Kodea	MF0556_3		
Lanbide-arloa	ELIKAGAIEN INDUSTRIAK		
Lanbide-eremua	Harakintza		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Harakintza	Maila	3
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko gainerako prestakuntza	Elikagaien produkzio-unitate baten antolamendua (zeharkakoa)	Iraupena	50
	Kalitatearen kudeaketa eta ingurumena elikagaien industrian (zeharkakoa)		80
	Prozesuak haragi-industrian		90
	Makinak eta instalazioak haragi-produktuak lantzean		50
	Haragi-produktuak lantzeko eragiketen kontrola		70
	Haragiaren eta haragi-produktuen kontrol analitikoa eta sensoriala		60
	Haragi-industrietako lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak		120

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-modulu hau bat dator gaitasun-atal honekin: UC0556\_3 HORNIKUNTZAK, BILTEGIA ETA BIDALKETAK KUDEATZEA ELIKAGAIEN INDUSTRIAN ETA MERKATURATZEARI LAGUNTZEKO JARDUERAK EGITEA

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Erosketa- eta hornikuntza-programak aztertzea, behar bezala zehaztutako logistika-plan baten arabera.

EI1.1 Salgaien hornidura-plan bat lantzean kontuan hartu beharreko puntuak zerrendatzea, enpresak ezarritako logistika-planaren arabera.

EI1.2 Aurreikusitako kontsumoetatik abiatuta, material desberdinen hornikuntza-premien kalkulu-sistemak erabiltzea.

EI1.3 Material desberdinentzako hornikuntza-erritmo egokia zehaztea, horien ezaugarrien eta kontsumoen eta hornidura-planaren arabera.

EI1.4 Eskaeren aurkezpen- eta tratamendu-baldintzak zehaztea, erosketa-prozeduraren arabera, harreran akatsak eta nahasteak saihesteko.

EI1.5 Lehengaien, osagarrien eta erosi beharreko gainerako materialen hautaketan kontuan hartu beharreko faktoreak identifikatzea, ezarritako prozeduraren arabera.

EI1.6 Eskaera bat egiten den behar bezala zehaztutako produkzio-premien kasu praktiko batean:

- Produkzio-ziklo baterako salgai bakoitzaren kantitateak kalkulatzea.
- Materialelek bete behar dituzten ezaugarriak zehaztea.
- Eskaera egokiaren tamaina kalkulatzea.
- Eskaeraren prezioa kalkulatzea.
- Salgaien erosketa- eta harrera-egutegiak egitea.
- Hornitzaileei zuzendutako eskaera-orriak betetzea, aurrekontuak kalkulatzea, baita produkzio-plana betetzeko eskaerak izan behar dituzten baldintzak zehaztea ere

A2: Lehengaien, osagarrien eta elikagai landuen eta erdilanduen izakinak kudeatzeko sistemak ebaluatzea, logistika-planaren arabera.

EI2.1 Biltegiko izakinen datuetan oinarrituta (kopurua, kantitatea, motak, prezioak), inbentario baten guztizko emaitzak zehaztea, inbentarioak egiteko ezarritako irizpideen arabera.

EI2.2 Erregistratutako izakinen eta egindako zenbaketen arteko bat ez etortzeen kasuan izan daitezkeen arrazoiak aztertzea.

EI2.3 Izakinen kontrolean gehien erabilitako prozedurak deskribatzea.

EI2.4 Produktuak katalogatzeko sistema desberdinak deskribatzea, ondoren behar bezala lokalizatzea ahalbidetzarren.

EI2.5 Biltegiatze-kostua zehazten duten aldagaiak deskribatzea, ezarritako ratioen arabera.

EI2.6 Lehengaien, kontsumigarrien eta amaitutako produktuen mugimenduak eta izakinak balioestea, onartutako kontabilitate-metodoen arabera (batez besteko prezioa, batez besteko prezio haztatua, LIFO -last input first output-, FIFO -firts input first output-).

EI2.7 Stock-maila desberdinak (gutxienekoa, segurtasunezkoa, ertaina eta gehienekoa) kalkulatzeko eta irudikatze metodoak ezagutzea eta maneiatzea, baita horien errotazio-indizeenak ere.

EI2.8 Izakin-mota desberdinen hasierako balioa, biltegitratze-kostuak, produkzio- eta salerosketa-eragiketen kostua eta erritmoak, murrizketa-taulak eta zenbaketa fisiko baten datuak ematen diren behar bezala zehaztutako kasu praktiko batean:

- Izakinak sailkatzea metodo ohikoenetako bat aplikatuz.
- Biltegitratzearen eta fabrikazioaren batez besteko denbora kalkulatzeko.
- Bitarteko biltegitratze-puntuak, bolumenak eta beharrezko baldintzak identifikatzea.
- Zenbaketako aldeak identifikatzea kalkulaturako balantzearen arabera, horiek izan ditzaketen arrazoiak argudiatuz.
- Bidezko kontrol-dokumentazioa lantzea.

EI2.9 Jasotako hornidurak eta onarpen-maila (edo ukapen-maila) ebaluatzea, eskaeraren ezaugarriekin homologatze aldera.

EI2.10 Sarrerako erregistroak biltegitratzearen kontrolan txertatzen direla egiaztatzea (kantitateak, ezaugarriak, datak, hornitzailea eta garraiolaria) eta, itzulketen kasuan, hornitzailearekin bidezko negoziazioak egiten direla, bidezko neurri zuzentzaileak ezarri eta betetze-maila ebaluatuz.

A3: Elikagaien industriako hornidura desberdinen biltegitratzeko, barne-banaketako eta manipulazioko prozesuak aztertzea, ezarritako prozedura operatiiboaren arabera.

EI3.1 Plano zehatz batean, biltegi estandar bateko zona desberdinak identifikatzea eta bakoitzaren ezaugarri orokorrak deskribatzea.

EI3.2 Salgaien eta horniduren biltegitratze-prozesuaren funtsezko faseak deskribatzea, eragiketa-planaren arabera, biltegitratze-zikloa behar bezala gauzatzeko beharrezko zereginak identifikatuz, eta lanpostuen inguruan multzokatuta.

EI3.3 Biltegi baten antolamenduan eragina duten aldagaiak zehaztea, aldagai bakoitzak espazio-banaketaren plangintzan dituen ondorioak ondorioztatuz.

EI3.4 Elikagaiak biltegitratzean gehien erabilitako manipulazio-baliabideak, horien aplikazioak eta ahalmenak ezagutzea, aplikatu beharreko segurtasun- eta higiene-neurriak zehaztuz.

EI3.5 Salgaiak manipulatzeko baliaabideak eta prozedurak produktu-mota desberdinekin lotzea, horien ezaugarri fisikoak kontuan hartuta, baita biltegitratze eta instalazioko espazioak, zorguneak eta ibilbideak ere.

EI3.6 Elikagaiak eta bestelako materialak (garbiketatu- produktuak, azpi- produktuak, hondakinak, ontziak, enbalajeak) biltegitratzeko hartu beharreko neurriak eta baldintzak deskribatzea, manipulazio-jardunbide egokien planaren arabera.

EI3.7 Produktuak biltegitratzeko beharrezko ingurune-baldintzak zehaztea, jardunbide egokien giden eta etiketen arabera.

EI3.8 Produktu desberdinen barne-banaketa zehaztea krokis baten bitartez, barne-banaketako giden arabera.

EI3.9 Produktuak izan ditzaketen barne-fluxuak eta -ibilbideak irudikatzea, espazioa, denbora eta horien erabilera optimizatzeko.

EI3.10 Biltegiaren eta instalazioaren barne-garraioa antolatzea, zirkulazio-baldintzak, ibilbideak, bitarteko puntuak eta amaierako puntuak finkatuz, segurtasun pertsonaleko neurriak eta kostu txikiak kontuan hartuta, salgaien barne-trafikoko prozeduraren arabera.

A4: Elikagaien industrian aplikatu beharreko harrera-, bidalketa- eta garraio-planen ereduak zehaztea, ezarritako gidetan oinarrituta.

EI4.1 Elikagaiak lekualdatzeko beharreko ingurune-baldintzak eta garraio-bide desberdinen ezaugarriak identifikatzea.

EI4.2 Elikagaien industriako produktuen garraio-ko babesari buruzko araudia ezagutzea eta interpretatzea.

EI4.3 Gehien erabilitako enbalaje-mota desberdinak identifikatzea eta zehaztea, garraio-bideen eta moten arabera.

EI4.4 Errotulazioan adierazi behar diren datu garrantzitsuenak zerrendatzea, salgaien identifikazioarekin edo gomendatutako manipulazio-baldintzekin erlazionatuta.

EI4.5 Etiketa batean jaso behar den eta/edo jaso daitezkeen informazioa deskribatzea, duen helburuarekin erlazionatuz elikagaiaren kontsumo-baldintzen eta konposizioaren inguruko orientazioari, identifikazioari eta kalifikazioari dagokionez.

EI4.6 Elikagaien garraio-kontratuak arautzen dituen merkataritza-araudia ezagutzea eta interpretatzea.

EI4.7 Salgaien garraioan inplikaturako alderdi bakoitzaren erantzukizunak bereiztea (saltzailea, garraiolaria, izan daitezkeen bitartekariak), baita akatsak erreklamatzeko epeak eta baldintzak ere.

EI4.8 Salgaien kargarako, deskargarako eta maneiurako baliaabideak eta prozedurak erlazionatzea produktu-mota desberdinek eskatzen dituzten ezaugarriekin eta arretekin, baita eragiketean aplikatu beharreko segurtasun-arauekin ere.

EI4.9 Lehengaien eta bestelako kontsumigarrien inguruan egin beharreko egiaztapenak zerrendatzea eta deskribatzea, horien harrera ontzat emateko eta salgaiak aldi baterako edo behin betiko onartzeko, baita amaitutako produktuak aurkeztearen inguruan ere, horiek bidaltzea ontzat emateko.

EI4.10 Lote desegokiak hartzen diren kasuetan izan daitezkeen erantzun-aukerak adieraztea.

EI4.11 Iraungitako edo ukatutako produktuen biltegitratze prebentiboa agintzea, inplikaturako departamentuei jakinaraziz, produktu horien jomuga erabakitze aldera.

A5: Teknika egokiak aplikatzea salerosketa-baldintzen negoziazioan eta bezeroen/hornitzaileen hautaketan eta ebaluazioan, homologazio-prozeduraren arabera.

EI5.1 Salerosketa-baldintzen negoziazio-prozesu baten etapa desberdinak ezagutzea.

EI5.2 Salerosketan gehien erabilitako negoziazio-teknikak identifikatzea eta deskribatzea.

EI5.3 Salerosketa-kontratuak arautzen dituen merkataritza-araudia interpretatzea.

EI5.4 Salerosketa-eskaera batean kontuan hartu beharreko puntu garrantzitsuenak deskribatzea.

EI5.5 Gehien egiten diren salerosketa-kontratu motak hautatzea, fakultatiboen klausula orokorrak bereiziz eta ezagutuz eta alde bakoitzak hartutako konpromisoak deskribatuz.

EI5.6 Hornitzaileekiko/bezeroekiko arreta- eta informazio-egoeretan aplikatu beharreko komunikazio-teknikak deskribatzea.

- EI5.7 Merkataritza-helburuak dituen elkarriketa pertsonal bat osatzen duten faseak zehaztea.
- EI5.8 Bezeroei/hornitzaileei buruzko informazioa jasotzeko metodoak identifikatzea, eta fitxategi maisu batean horiei buruz jaso behar diren funtsezko datuak adieraztea.
- EI5.9 Hornitzaileen/bezeroen eskaintzak/eskariak hautatzean aplikatzen diren funtsezko irizpideak ezagutzea.
- EI5.10 Bezero/hornitzaile batekin telefono bidezko eta/edo kontaktu pertsonaleko elkarriketa batean, negoziazioak hasteko:
- Solaskidearen ezaugarriak zehaztea komunikazio- eta/edo negoziazio-prozesuan izan beharreko jokabideak ezartzeko.
  - Bezeroa/hornitzailea ezagutzeko beharrezko informazioa lortzea, kontratuak ahalbidetzeko interesgarriak diren alderdiei dagokienez.
- EI5.11 Behar bezala zehaztutako kontratazio-kasu praktiko batean, honako alderdi hauek biltzen dituen plan bat ezartzea:
- Dagozkion premien, indarren eta ahulezien kalkulua.
  - Negoziazioaren alderdi nagusien identifikazioa eta teknika egokiena.
  - Produktuaren ezaugarrien aurkezpena eta bezeroaren premiekiko egokitzapena.
  - Kontratuko partida-baldintzen aurkezpena modu argian eta zehatzean.
  - Izan daitezkeen kontzesioen kalkulua, horien kostua eta negoziazioaren mugak balioetsiz.
- A6: Elikagaien industriako eta merkataritzako salmenta-modalitate desberdinak eta horien garrantzia aztertzea, merkatu-planaren arabera.
- EI6.1 Salmenta-funtzioak lortu nahi dituen helburuak hautatzea.
- EI6.2 Produktu jakin batzuen salmenta-mota desberdinak bereiztea, estiloaren, produktuaren edo bezeroaren arabera.
- EI6.3 Elikagai-lineak erlazionatzea erabilitako salmenta-estiloekin, kasu bakoitzaren abantailak eta eragozpenak azpimarratuz.
- EI6.4 Salmenta-mota pertsonalera bereziki egokitzen diren produktuak identifikatzea, horiek barnean hartzea arrazoituz.
- EI6.5 Salmenta-agente batek gara ditzakeen funtzioak deskribatzea.
- EI6.6 Saltzaile bat eta enpresari bat lotu ditzakeen kontratu bidezko harreman-motak bereiztea.
- EI6.7 Salmenta-funtzioa kalkulatzeko erabilitako metodoak saltzaile bakoitzari dagokion zatiarekin lotzea.
- EI6.8 Salmenta-agente baten gaitasun garrantzitsuenak azpimarratzea, horiek hobetzeko teknika batzuk adieraziz.
- EI6.9 Elikagaien industriako salmenta-ondoko zerbitzu ohikoenak deskribatzea, baita denboran zehar duten bilakaera eta salmenta-agenteak horien barruan betetzen duen papera ere.
- A7: Elikagaien sektoreko produktuen, banatzaileen eta merkatuaren inguruko informazioa lortzea, horien lehen interpretazio eta balioespen bat eginez, kontratu-baldintzetan eta enpresak ezarritako argibideetan oinarrituta.
- EI7.1 Prezioen erregulazio-kanpainen, merkaturatzeari buruzko araudien, eta lehengaien eta elikagaien nazioarteko merkatuaren inguruko informazioa interpretatzea.
- EI7.2 Merkataritza-ikerketan gehien erabilitako informazio-bilketako teknikak identifikatzea eta azaltzea.
- EI7.3 Inkestagileek beren lana garatzerakoan kontuan hartu behar dituzten jardun-jarraibide nagusiak deskribatzea.
- EI7.4 Merkataritza-ikerketan eta ondoko emaitzen interpretazioan erabilitako estatistika-datu nagusiak identifikatzea eta deskribatzea.
- EI7.5 Banatzaileei aholkatzea elikagaiak biltegitratzeko, kontserbatzeko eta manipulatzeko baldintzei buruz, fitxak eguneratuz banatzaile bakoitzaren ezaugarriekin, hornitzaileen homologazio-prozeduraren arabera.
- EI7.6 Banatzaile bakoitzarekin kontratatutako baldintzak (esklusibitateak, salmenta-prezioak, sustapen-kanpainak, entrega-epeak eta salmenta-ondoko zerbitzuak) ezarritako terminoetan betetzen direla egiaztatzea, eta ez-betetzeen kasuan bi aldeei jakinaraztea.
- EI7.7 Banaketa-bidean sortzen diren edo sortzea aurreikusten diren eta produktuen errotazioetan edo fluxuetan, stock-hausturetan edo banaketaren estalduran eragina duten anomaliak gainbegiratzea, horien arrazoiak aztertuz eta neurri zuzentzaileak proposatuz, desadostasunen prozeduraren arabera.
- A8: Salmenta-puntuaren eta lortu nahi diren helburuen publizitate-, sustapen- eta animazio-ekintzak zehaztea, elikagai-enpresaren politikaren eta estrategiaren arabera.
- EI8.1 Ohiko merkataritza-jardunean gehien erabilitako publizitate- eta sustapen-euskarriak, -motak eta -baliabideak deskribatzea.
- EI8.2 Publizitatearen eta sustapenaren helburu orokorrak eta merkataritza-jardueran izan ditzakeen inplikazioak erlazionatzea.
- EI8.3 Publizitate- edo sustapen-kanpainetan kontrolatu beharreko aldagaiak definitzea, emaitzak balioesteko.
- EI8.4 Publizitate-harremanetan gehien erabilitako teknikak eta horien helburuak deskribatzea.
- EI8.5 Eroslearen eta kontsumitzailearen artean eta kanpaina bat ezartzerakoan duen eragina bereiztea.
- EI8.6 Premien eta motibazioen sailkapen nagusiak eta horiek estaltzeko moduak zehaztea.
- EI8.7 Erosketa-mota desberdinen artean eta hainbat faktorek horiengan duten eragina bereiztea, hala nola modak, sustapen-kanpainak, salmenta-puntuak eta agintzaileak.
- EI8.8 Erakusleho batek izan ditzakeen funtzioak eta helburuak eta eskaparatismo-teknikek kontsumitzailearengan sortu nahi duten eragina bereiztea.
- EI8.9 Elikagaien merkataritza-establezimenduetan erabilitako "merchandising" teknika nagusiak identifikatzea eta azaltzea.
- EI8.10 Lineal hoberearen kalkuluan erabiltzen diren parametroak eta produktuen onurarako horiek kontrolatzeko moduak identifikatzea.
- EI8.11 Establezimendu bateko salmentaren xehetasunei buruz, behar bezala zehaztutako kasu praktiko batean:
- Apalategiko metro lineal bakoitzeko eta metro karratu bakoitzeko errendimenduak kalkulatzeko.
  - Produktuak lokalaren leku desberdinetan kokatzearen eraginkortasuna kalkulatzeko, elikagaiak direla kontuan hartuta.

- Elikagai-artikulu jakin baten gutxieneko lineala eta lineal optimoa lortzea.
- Puntu beroak eta hotzak adieraztea.

## **Edukiak:**

### **1. Logistika elikagaien industrian.**

- Oinarrizko kontzeptuak.
- Osatzen duten zatiak.
- Logistikako jarduerak: Produktuen hornikuntza-plana. Hornikuntza-zikloa. Bidalketa-zikloa. Eskaeraren zehaztapen kualitatiboa.
- Eskaeraren zehaztapen kuantitatiboa: Berrikuspen jarraituko sistemak. Aldizkako berrikuspen-sistemak. Zehaztapen-ereduak. Eredu probabilitistikoak.
- Eskariaren aurreikuspena: Maila konstanteko ereduak. Joerako ereduak. Urtaroko ereduak. Erregresio-ereduak.
- Eskaerak aurkezteko eta transmititzeko baldintzak.
- Lehengaiak, gai osagarriak eta gainerako materialak hautatzerakoan kontuan hartu beharreko oinarrizko faktoreak.
- Eskaeran baten kasuan kontuan hartu beharreko kalkulu praktikoak eta bestelako ezaugarriak.

### **2. Elikagaien industrian aplikatu beharreko inbentarioen kudeaketa-teknikak.**

- Material-premien plangintza MRP.
- Banaketa-premien plangintza. DRP.
- Hornidura-kateen kudeaketa (Supply Chain Management).
- Erregistratutako izakinen eta zenbaketen arteko bat ez etortzeak. Arrazoiak eta konponbideak.
- Produktuen katalogazioa eta lokalizazioa.
- Biltegiatze-kostuak kalkulatzeko.
- Horniduren ebaluazioa eta katalogazioa.
- Sarrera-erregistroak eta hornitzailearekiko negoziazio-erregistroak.

### **3. Elikagai-salgaien garraioa.**

- Kanpo-garraioa: Garraiobideak. Motak. Ezaugarriak.
- Elikagaien garraiobideen baldintzak: Bidalketen babesa. Inguru-kondizioak. Enbalajea garraio-motaren arabera. Errotulazioa. Sinboloak. Esanahia. Gutxieneko jarraibideak.
- Garraio-kontrata: Parte-hartzaileak. Aldeen erantzukizunak.
- Barne-garraioa eta -banaketa: Ibilbideen plangintza. Salgaiak kargatzea eta deskargatzea.
- Barne-banaketaren antolamendua. Zirkulazio- eta segurtasun-baldintzak. Gutxieneko kostua.
- Salgaien etiketak, helburua eta ematen dituzten datuak.

### **4. Biltegien antolamendua elikagaien industrian.**

- Plangintza.
- Biltegiaren zatiketak. Zonifikazioa. Baldintzak.
- Elikagaien biltegiatzea. Inguru-kondizioak.
- Elikagaiak biltegiatzean kontuan hartu beharrekoak.
- Elikagaiak ez diren bestelako salgaiak biltegiatzea (garbiketa-produktuak, azpiproduktuak, hondakinak, ontziak eta enbalajeak).
- Bateriaezintasunak. Irizpideak manipulazio-jardunbide egokien planari jarraikiz.
- Biltegiatze eratorritako kalteak eta akatsak.
- Salgaien banaketa eta manipulazioa biltegian. Barne-banaketako gidak.
- Segurtasuna eta higiena biltegiatze-prozesuetan.
- Produktuen barne-ibilbideak eta -fluxuak. Espazioaren, denboraren eta produktuen erabileraren optimizazioa.
- Stock-maila desberdinen eta errotazio-indizeen kalkulua.

### **5. Izakinen kudeaketa elikagaien industrian.**

- Izakin-motak. Kontrolak. Desadostasunen arrazoiak.
- Lehengaiak, osagarriak, produktu bukatuak, bidean daudenak, ontziak eta enbalajeak.
- Izakinen balorazioa. Metodoak. Prezioak: batez bestekoa, batez besteko haztatua, LIFO, FIFO.
- Produktuen ABC azterketa.
- Izakinen kontrol-dokumentazioa.

### **6. Elikagaiak merkaturatzea.**

- Oinarrizko kontzeptuak. Osatzen duten zatiak.
- Garrantzia eta helburuak.
- Salmenta-kontzeptua: Salmenta-motak. Salmenten funtzioa. Salmenta pertsonalaren ezaugarriak.
- Salmenta-estiloak eta elikagai-linearekin duten erlazioa.
- Salmenta-agentea. Funtzioak.
- Elikagaien Industriako kontratu ohikoak.

- Elikagaien Industrian erabilitako salmenta-ondoko zerbitzuak.

#### **7. Merkataritzako negoziazio-prozesua eta salerosketa elikagaien industrian.**

- Oinarrizko kontzeptuak.
- Plangintza.
- Prospekzioa eta prestakuntza.
- Negoziazio-prozesua.
- Salerosketa-prozesua.
- Komunikazioa negoziazio- eta salerosketa-prozesuan: Komunikazioaren funtzioa. Komunikazio-prozesua. Komunikazio-plana. Komunikazioaren mugak. Komunikazio-bideak bezeroen eta hornitzaileen artean.
- Negoziazioaren garapena. Negoziazio-teknikak.
- Salerosketa-baldintzak. Kontratua. Araudia.
- Negoziazio- eta salerosketa-prozesuen kontrola.
- Bezeroen eta hornitzaileen negoziatio-boterea. Eragina duten faktoreak.
- Bezero- eta hornitzaile-motak.
- Bezeroen eta hornitzaileen hautaketa.

#### **8. Merkatua eta kontsumitzailea elikagaien industrian.**

- Merkatua, motak.
- Kontsumitzailea/eroslea.
- Publizitatea eta sustapena: Publizitatea eta publizitate-baliabideak. - Salmenta-promozioak. Harreman publikoak.
- Publizitatea eta sustapena salmenta-puntuak.
- "Merchandising" teknikak.
- Banaketaren helburuak eta kontzeptua.
- Banaketa-bideak.
- Produktua eta bidea.
- Banatzaileekiko harremanak.
- Aholkularitza banaketan. Produktuaren salmenta-ondoko jarraipena.
- Produktuen banaketa- eta salmenta-prozesuan elikagaien industriaren atribuzioak finkatzen dituzten kontratuak.

### **C atala: ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Harakintza.